

Arartekoaren 2014R-455-14 Ebazpena, 2014ko uztailaren 23koa. Horren bidez, Alonsotegiko Udalari gomendatzen zaio, legezko eran eta eskaturikoaren arabera, kexagilearen finka baten mugaketa izapidetu dezala. Udal titularitateko beste finka baten mugakidea da finka hori.

Aurrekariak

1. (...) jaunak eginiko kexa jaso dugu erakunde honetan, ez delako izapidetu Zamundi parajeko 1. Poligonoko (...) zk.ko finka mugatzeko espedientea. Muga hauek ditu finkak: Iparraldetik, Ekialdetik eta Hegoaldetik poligono bereko (...) zk.ko finka; Alonsotegiko Udalaren herri-jabetzapekoa da.

Pertsona horrek planteatu zigunez, 285/2013/29 erreferentziarekin izapideturiko kexan izan genuen esku-hartzea bukatutzat emateko 2013ko azaroaren 20ko gure ebazpenaren ondoren, udalak ez ditu egin mugaketa behar bezala gauzatzeko aginduzko izapideak. Ondorio hau eman genuen ebazpen hartan:

“(...)udalak jardunik bideratu ez izana interesdunaren mugakide den eta udalaren jabetzakoa den lursaila mugarriztatzeko eskaeraren aurrean, konpondu da, oraindik ere prozedura amaitu arte beharrezkoak diren izapideak burutu behar diren arren. ”

Zehazki, kexagileak adierazi digu ezen udalak, ebazpenean agerrarazi denez, bi finka mugakideen lur-neurketa egin duela, beste izapide batzuen artean. Hala ere, ez du nahi espedientea formalki bukatutzat eman mugaketa-aktaren bidez.

Udalak zenbait zio aipatu ditu horretarako. Berak dioenez, zenbait eragiketa material gauzatu badira ere, dirudienez, formalki ez da espedientea izapidetu, betiere Tokiko Erakundeen Ondasunen gaineko Arautegian ezarritakoarekin bat etorritik. Horrexegatik uste du udalak ez dela bidezkoa ebazpen formala egitea, interesatuak hala egiteko eskaera bat beren beregi izapidetu ezean.

2. Erreklamazioan azaldutakoak eta aurreko atalean aipaturiko aurrekariak aztertu ondoren, informazioa eskatu genion udalari, espedientearen izapidetzearen egoeraren berri izateko.

Horri dagokionez, gure jakinarazpenean aurreratu genuenez, gure ustez, udalak lehenbailehen izapidetu beharko luke espedientea, legez ezarritako prozedurarekin bat etorritik. Kexagileak eskaturikoaren arabera, ez genuen eragozpenik ikusten, dagoeneko izapideturik zegoen dokumentazioan espedientearen sartzeko, memoria gisa, eta izapide egokiak gordetzea beren beregi erabakitzeke, espedientea jendaurrean jartzearen emaitzari kalterik egin gabe.





3. Alonsotegiko Udaleko alkate-udalburuak, bere erantzunean, eskatu genuen informazioa igorri zuen, eta aholkulari juridikoaren 2014ko martxoaren 20ko txostena aurkeztu zuen. Honako argibide hauek zekartzan txostenak:

- Erakunde honek izapideturiko 285/2013 kexa-espeditenteak zekarrenez, mugaketa 2013ko irailaren 4an gauzatuko zela erabaki zen.
- Ezarritako egunean eta orduan, mugatu beharreko lur-zatia markatu zen (metodo estatiko bizkorra), eta ondoren, lorturiko datuak euskarri digitalean deskargatu ziren, UTM koordenatuak zituen plano sortzeko xedearekin; plano hori aurkeztu behar zuen eskatzaileak udaletxean, bulego teknikoak berretsi zezan.
- Dokumentua aurkeztu ondoren, dokumentu teknikoaren aldeko txostena eman zuen udal arkitekto aholku-emaileak, bat zetozelako aurkezturiko planoetan islaturiko mugatze-koordinatuak eta 2013ko irailaren 4an eginiko lur-neurketan adierazitakoak. Txostenean, azkenean, mugaketa ontzat emateko organo eskudunari eginiko proposamena azaltzen zen.
- Jakinarazpen ofizialik jaso ez zenez gero, udalarekin jarri zen harremanetan kexagilearen ordezkaria, eta deiari erantzunez, udalaren aholkulari juridikoaren 2013ko azaroaren 28ko posta elektronikoa bidali zitzaion, espeditentearen egoeraren berri emateko eta falta zen izapidea adierazteko: *"la notificación de un oficio de alcaldía dando el visto bueno a la delimitación reflejada en el documento técnico presentado"*.
- Kexagilearen ordezkariak, informazio hori ikusita, espeditentea ofizioz eta mugaketa-aktarik gabe emandako ebazpenarekin bat ez zetorrela adierazi zuen, eta OAren 65. artikuluan ezarritakoaren arabera mugaketa onesteko erabakia eskatu zuen.
- Udalaren aholkulari juridikoak kexagileari jakinarazi zion, eskatu zuen ebazpena zela-eta, OAko 58.etik 64.era bitarteko artikuluetan ezarritako mugaketaren prozedura jarraitu behar zela. Kexagilearen lur-zatiaren mugakidea den udal lur-zatiaren mugaketa formalki gauzatzeko eskatu zitzaion ordezkariari, egiteke zeuden izapideak burutzeko eta espeditentea eskaturikoaren arabera ebazteko.

Bestalde, kexagilearen ordezkariari igorritako jakinarazpenaren kopia ere aurkeztu zion udalari. Horren bidez, helarazi zitzaion 2013ko urriaren 7ko txosten teknikoa, non 1. Poligonoko 41. lur-zatiko mugak ontzat ematen ziren. Mugak 2013ko irailaren 9an finkatu eta kexagileak aurkezturiko dokumentu teknikoan ("001 poligonoko 041 lur-zatiaren jabari-espeditentea" izenekoa) agerrarazi ziren, jakinaren gainean egoteko eta ondorioak izateko.



Gogoetak

1. Mugaketaren inguruan jarraituriko izapideei eta legezko prozedurari dagokie aurkezturiko kexa honen xedea. Zehazkiago, eztabaida dago ea udalak mugaketa-espedita ofizioz izapidetu behar ote duen, edo bestela, kexagileak nahitaez egin behar ote duen berriz ere mugatzeko eskaera, legezko prozedura jarraitu nahi bada eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Ondasunen Arautegiko (OA) 65. artikuluan ezarritako ebazpen-erabakia eman nahi bada.

Kexagilearen ustez, igarotako denbora eta azaldutako gorabeherak direla medio, ez da onargarria mugaketa berriz ere eskatzera behartzea; bere ustez, udalak berak ofizioz sustatu behar du jarduketa hori.

Lehenik eta behin esan beharra dago hauxe zioela, beren beregi, kexagilearen ordezkariak udalari 2012ko otsailaren 9an aurkezturiko eskaera-idazkiak:

“que, teniendo por presentado este escrito con los documentos que se acompañan, mándese practicar el deslinde y amojonamiento de la finca descrita en el cuerpo del escrito por los linderos Norte, Este y Sur, señalando día y hora para la diligencia, notificando al Perito que corresponda, para solicitar su intervención.”

Ez dirudi zalantzarik uzten duenik interesatuaren eskaerak, hots, aipaturiko finkaren mugaketa eta zedarritzea gauzatzeko eskatzen da, eta udalari dagokio legeak horrelako jarduketetarako ezarritako izapideak erabakitzea eta jarraitzea.

2. Kexagileak eginiko eskaeraren aurrean udalak jarraituriko prozedura eta tokiko erakundeen ondasunak mugatzeari buruzko espezialitateak aipatu baino lehen, kexaren kasuan aplikatu beharreko administrazio-prozedura erkidearen oinarritzko arauak aztertuko ditugu.

Eskaera aurkezten duenak eskubidea du organo eskudunak emandako ebazpena eskuratzeko, non planteaturiko gai guztiak eta ebazpenaren ondoriozko guztiak ebartziko diren. Ebazpen horrek bat etorri behar du eskaturikoarekin, zioak azalduta izan behar ditu, legez ezarritako kasuetan, eta ebazpenaren kontrako bidezko errekurtsioak bildu behar ditu (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89. artikulua).

Ildo horretan, legez kontrakoa da interesatuak eskatuta izapideturiko espedita bukatzea "alkatetza ofizioz", zeren eta jakinarazpen horrek ez baitu betetzen ebazpenerako ezarritako forma ez edukia. Organo eskudunak emandako erabakirik ere ez dakar berekin, baina gai hori aurrerago aipatuko dugu mugaketari buruzko prozedura espezifikoa aztertzean.





Jarraituriko prozedurari dagokionez esan behar da prozeduraren antolamendua nahiz izapidetzea ofizioz bultzatu behar duela prozedura izapidetzen duen organoak, eta kasuan kasuko administrazioari dagokio espedientea legez ezarritako prozedurarekin bat etorri izapidetzea. Hala dago xedaturik azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 74 eta 78. artikuluetan. Hauxe dakar azken horren lehen atalak:

“Prozedura izapidetzen duen organoak bere kabuz egingo ditu ebazpena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko instrukzioegintzak. Interesdunek proposa ditzakete, nolana ere, beren esku-hartzea dakarten jardunak edota legez edo erregelamenduz ezarritako izapideak dakartzatenak.”

Laburbilduz, eskaturiko prozedura ez da bukatu ez forman ez edukian eskatzaileak dituen eskubideekin. Bestalde, mugaketa onesteko legez ezarritako prozeduraren izapideak ere ez dira jarraitu, eta horretan bat datoz alde biak -jarraian aztertuko dugu azken gai hori-.

3. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Ondasunen Arautegiak -OA- tokiko erakundeen ondasunak mugatzeko prozedura araupetzen du. Hala, hauxe ezarri da 56. artikuluan:

“1. Las Corporaciones Locales tendrán la facultad de promover y ejecutar el deslinde entre los bienes de su pertenencia y los de los particulares, cuyos límites aparecieren imprecisos o sobre los que existieren indicios de usurpación.”

2. Los dueños de los terrenos colindantes con fincas pertenecientes a las entidades locales o que estuvieren enclavadas dentro de aquellas podrán reclamar su deslinde.”

Arautegiaren 57. artikuluen eta hurrengoaren arabera, hona hemen, laburbilduta, jarraitu beharreko izapideak:

- Erabaki bidez hasia espedientea, aurretik memoria aztertuta (mugaketarako justifikazioa, finkaren ezaugarriak, mugak, mugakideak, tituluak, etab.).
- Udalbatzak mugaketa egiteko erabakia, eta alboko finken jabeen jakinaraztea.
- Iragarkia Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan jartzea 60 egunez, alegazioak eta dokumentazioa aurkezteko.
- Mugaketaren lur-neurketa eta akta.

Horrek guztiak mugaketari buruzko ebazpen-erabakiarekin bukatu behar du; betearazlea izango da eta administrazioarekiko auzietarako bidean soilik aurkaratu ahal izango da (OAren 65. artikulua).





Aurrekarietan islatzen denez, mugaketa gauzatu arren, ez ziren bete Arautegian aipaturiko izapideak (erabakia, iragarkia, alboko finken jabeei jakinaraztea, etab.).

4. Udalak planteaturiko aukera baztertuta, hots, beste eskaera bat izapidetzea, lehen eta bigarren oinarrietan argudiatu dugunez, udalak ofizioz ekarri behar du espedientea nahitaez prozedurako une egokira, hots, udalbatzak mugaketari buruz hartu beharreko hasierako erabakira, eta dagoeneko eginda dauden dokumentuak eta txostenak sartuko dira espedientean, memoria gisa.

Gainera, eginiko izapideak errepika ez daitezen, erabakiak beren beregi ezarri behar du, jendaurrean jartzearen emaitzari kalterik egin gabe, bidezko izapideak gordeko direla, horien artean mugaketari eta lur-neurketari buruzko egintza.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan araupeturikoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egin behar zaio Alonsotegiko Udalari:

GOMENDIOA

Ofizioz eta legez ezarritako prozeduraren arabera izapidetu dezala Zamundi parajeko 1. Poligonoko (...) zk.ko finkaren jabeak egun batean mugaketa gauzatzeko eginiko eskaera. Muga hauek ditu finkak: Iparraldetik, Ekialdetik eta Hegoaldetik, poligono bereko (...) zk.ko finka, Alonsotegiko Udalaren herri-jabetzapekoa.

